

Literatura →

Estaturik gabeko nazioei so

Alex Gurrutxaga

Dozena bat hizkuntzatarra baino gehiagotara itzuli dute *L'Âge des incertitudes* Alain-G. Gagnon ikerlari eta irakasle entzutetsuaren saiakera; orain, euskaraz irakur genezake (euskaraz dugun haren bigarren lana da).

Federalismoari buruzko saiakera mamitsua da Gagnonen, ikerketa akademikoan eta azterketa kritiko sakonean oinarritua. Obra erabat aktuala da, ez bakarrik originala orain bi urteko delako, baizik eta federalismoa azkernaldian puri-purian dagoelako. Gagnonek dio «Estatu-nazio berrien sorkuntza bolada baten bezperan gaudela», eta uste du Espainia federalismoaren bidean dagoela. Gogor kritikatzeko zentralismoa (eta federalismoaz mintzo diren zentralistak) eta gutxiengo nazioen autonomia eskerak onartzen ez dituzten Estatuak. Horren ordez, *federalismo multinazionalaren* aldeko apustu irmoa egiten du.

Oinarri zientifiko sendoa du saiakerak. Batetik, errealitatearen deskribapen kritikoa egiten du Gagnonek, nagusiki Quebec-

ko eta Kataluniako kasuak behatuz, baina, betiere, Euskal Herria eta estaturik gabeko nazioak go-goan. Gainera, azterketa konparatiboa egiten du, eta horrek ikuspegi interesgarria ematen dio irakurleari. Bestetik, iturri anitzetako informazioa aztertzen du: alde horretatik, aipatu beharrekoak da oin-oharrak ematera koan duen zehaztasuna eta amaieran sartu duen bibliografia (bidenabar, gaurkotatzen erabatekoa duena). Azkenik, deskribapen eta azterketa kritikoa gainean egiten du Gagnonek bere gogoeta eta proposamena.

Horrek guztiak irakurketa dentsua bihurtzen du, baina, aldi berean, zehaztasunak babestu egiten du teorizazioa. Halaber, nabaria da testua dibulgatiboago bihurtzeko ahalegina (taulekin, egitura azalduz, eta abar).

Esanguratsua da, berriz, federalismoari buruzko saio honen lehen atala hizkuntza aniztasunaren ingurukoa izatea. Hori klabea da, Gagnonen ustez, komunitate linguistikoz gain komunitate politikoa ere definitzen baitu. Atal honetako ideiak erraz ekarriko ditu irakurleak gurera. Besteak beste, interesgarria da nola

definitu eta baloratzen diren elebitasun pertsonalaren irizpidea (EAEko legeena kasu) eta *lurraldelebitasunarena* (Nafarroako, adibidez).

Ziurrenik, pasarte diskutigarrienak etika ukitzen dutenak dira. Izan ere, puntu horretan logikotzat hartzen dira gizarte eta mundu ikuskera bat, baina hori, onartu beharra dago, kontu pertsonala da. Adibidez, Quebecen kasuak ari delarik Gagnonek zera dio: «Gizarte liberal bati dagokion gauza da horrelako eman-tzipazio politiko bat sustatzea».



'ZIURGABETASUNAREN AROA'

■ **Egilea:** Alain-G. Gagnon.
■ **Itzultzailea:** Joxe Antonio Sarasola.
■ **Argitaletxea:** Alberdania.

Gu ziur egon gaitzeko hala behar lukeela, baina ezagutzen ditugu horrela pentsatzen ez dutenak ere. Esango nuke etikaren esparruan anarkismoaren postulatutik teorikoetatik gertu dabilela egileak, batez ere askatasun indibidualaz eta kolektiboaz ari denean. Horrez gain, ikuspegi etiko horrek kutsu utopista duela esango du inork, mintzo baita «garapen zoriontsuaz» edota «neurritasunaren, duintasunaren eta abegikortasunaren gainean eraikiko den politikak» batez. Badira irribarre mikatza ezpainen irakurtzen diren lerroak ere: «[F. Palermok dio] oraindik ez zaiela onartu gutxiengo nazionalen autonomia eskubiderik eta berorren erabilpena lekuan lekuko Estatuaren borondate onaren esku dagoela».

Azken batean, esan behar da saiakera nahiko espezifikoa dela hizkera tekniko duelako, kontzeptu asko lantzen dituelako eta irakurleari eskatzen diolako oinarriko jakintza irakurketaz eta gogoetaz gozatu ahal izateko. Hori bai, errealitate soziopolitikora hurbiltzeko modu kritikoa eta serioa zinez eskertuko du irakurle interesatuak.



'HAUSNART', 3. ZENBAKIA

■ **Argitaratzailea:** Lapiko Kritikoa.

Humanismoaren hilondoko gutuna izenburua ezarri diote Lapiko Kritikoa elkarteak kideek *HAUSNART* aldizkariaren 3. zenbakia. Imanol Galfarsorok Santiago Zabala Filosofia katedradunari egindako elkarrizketa, eta Andoni Olariaga, Bakarne Altonaga eta Nathan Françoisen lanak biltzen ditu, beste batzuen artean.



'IRAUNKORTASUNA UNIBERTSITATETIK ABIATUTA. DISZIPLINA ARTEKO HAUSNARKETA'

■ **Koordinatzailea:** Iñaki Lasagabaster Herrarte.
■ **Argitaratzailea:** EHU.

Lur planetaren iraunkortasunaren arazoa dakarkio liburu honen irakurleari, hainbat diziplinako adituen idazlanen bitartez: zuzenbidea, arkitektura, hizkuntzalaritza, soziologia, kimika, antropologia, biologia...



'ZER DA KASUZKO GIZARTE-LANGINTZA?'

■ **Egilea:** Mary Ellen Richmond.
■ **Itzultzailea:** Kontxesi Berrio-Otxoa eta Ainhoa Berasaluze.
■ **Argitaratzailea:** EHU.

Mary Ellen Richmondek gizarte langintzaren oinarri zientifikoak ezarri zituen, bai lanbidearenak bai jakintza arloarenak, gizarte langintzaren eremuan jardun profesionalerako eta prestakuntza akademikorako proposamenak eginez.

↓ Haur eta gazte literatura

Frak-dun eroak

Imanol Mercero

Txorakeriatan dabilen guztiekin gertatzen den bezala, liburu honek ez du erdibiderik onartzen, maiteko duzu ala gorrotatuko.

Barre-argara zilipurdika eragitealortu nahi duten lanetan, ohikoa da irakurle hasieratik amaierara hats bakarrean eramatea eta, ohikoagoa dena, tonu eroan agertzea. Gutxi ez, eta *Orkestra lurtarra*-k koska bat gehitu dio eronkari, halakoetan ohikoa ez den tonu kulturea eta didaktikoa erantsiz. Zaila, horratik, frak-jantzita zilipurdika ibiltzea... ezta?

Has gaitetzen, ezer baino lehen, mahai gainean jartzen hausnarketa honetara iristeko behar diren osagaiak. Deskriba dezagun, bada, liburua.

Narratioak ehun eta bat orrialde hartzen ditu, launa orrialdeko hogeita bat atal, ilustrazio eta guzti. Hasieran, *BERRIAKO Mantangorri* gehigarrian banaka ar-

gitaratu ziren atalok, eta, hortik, formatuaren berezitasunak, esaterako, kapituluaren hasieran dauken laburpen kutsuko paragrafo horiek.

Kontaketaren hariak orkestra baten sortzeaz, bilakatzeaz eta amaieraz dihardu, hiru une horietan sentitu eta bizitzen direnak esplizituki azaltzen ditu.

Protagonista Manu da, orkestra bat osatu nahi duen zuzendaria, afizioz erratz-jotzaile ere badena. Harekin batera protagonista-kidetzan agertzen dira Lurri-netti anaia tronpeta-jotzaileak, Aldika biolin-jotzailea, Osoki triangelu-jotzailea, Crocanti kontra-tenorea, Presidente izeneko ahuntza eskailera-igotzailea eta kardantxilo mutua bat. Beste pertsonaia gutxi batzuk agertzen dira, zeregin apalagoarekin, esaterako, Renzo Panini piano-jotzailea eta Goyan Bego kritikaria.

Kokalekuak, hauek: Muziki plazako kioskoa, Italia, Erroma, Trieste, Mongolia, Marsella, New York eta transatlantiko bat.

Narratzaile gisa, hirugarren pertsona ari den kontalari bat terako, digresioetarako joera neurrigabea duena eta gertaerak bere erara azaltzea eta antzeko bekatu txiki aitortuak egiten dituen. *Pizzicatao* azaltzeko 13. atal osoa erabili izanak erakusten du zenbateko musikazalea den. Baita, musika klasikoaren lexikoa sarri-sarri agertzen du, beste hainbat kultismo eta jakingarriekin, Italiari buruzkoak batik



'ORKESTRA LURTARRA'

■ **Egilea:** Harkaitz Cano.
■ **Ilustratzailea:** Jokin Mitxelena.
■ **Argitaletxea:** Elkar.

bat. Halere, aparteko maisutasuna digresioetan erakusten du, adibidez, 5. atalean triangelu moten lista egin eta azaltzen duenean: Bermudetakoa, isoszelea, maitasunarena, musika-tresna. Edota kontzeptu abstraktuak azaltzeko hartzen duen tartetan: harpa jotzea, ziria sartzea, adarra jotzea, jelsia, maitasun triangelua, trauma, adikzioa, gutziak izatea, pertsonen barne ezkutua, orkestra-gizona, artearen lilura...

Esan liteke narratzailea dela istorio honetako benetako protagonista.

Eta narratzaileak esaten eta deskribatzen ez duena ilustratzaileak erakusten digu. Bere gisara eta liburuak duen tonuari jarraituz, tarteka txisteak eginez, Astoria hotelaren gainean dagoen asto hori baten estatua, kasurako.

Hala, bada, azalean umorea baina barnean zer ikasi ugari duen obra atipiko bat da, eroarenekin eginez kontzeptu eta zaletasun kultuak plazaratzeko ahalegina egiten duen obra ero frakduna.